

Carmen Valois

IRAKASLEA

## Komunitatearen garaia

**I**majinatzen dut hartz bat, neguko hilabeteak lotan eman eta gero, esna. Iratzartzerakoan, kobazuloaren sarrerara hurbilduta, aho bete hortz gelditzen da aurrean duenarekin: dena aldatuta dago, ohiko erreferentziak ez ditu topatzen, desagertu egin dira. Bat-batean galduta sentitzen da. Bere fisikoari erreparatuta –hain handia, hain ahaltsua–, paradoxikoa da ikustea nola kikildu egiten duen beldurrak, nola gutxitu egiten dituen bere gaitasunak.

Iruditzen zait antzeko zerbait gertatu zaigula. Gure imaginarioan ezinezkoa zena, gurean da bete-betea, harrapatu egin gaitu. Alabaina, orain dela gutxi arte, bazirudien munduan zehar gertatzen ari ziren ezbeharrak ez zirela guregana ailegatuko. Sinetsita geunden ez zeukatela zerikusirik gurekin, ahalguztidunak ginela mendebaldeko bazter hauetan, menderakaitz. Eta horrela, nagitasun kontziente erosoan, lasai esertzen ginen telebistaren aurrean bapo afaltzen genuen bitartean. Axolagabekeriak begiratzen genien irudiei, berdin Afrikako lurralde ahaztu bateko goseteak izan ala Ekialde hurbileko gatazkak. Guk betiko bizimoduarekin jarraitzen genuen, negu hotzeko gauetan gure etxeetan horko edo hango gas naturalarekin berotzen ginen bitartean.



Esnatu gara, edo hobeto,  
esnarazi gaituzte. Eta bizi  
dugun egoerak erakutsi digu,  
gu ere, ahulak garela: gu  
ere ez gaudela salbu  
eta beste latitudetan  
gertatzen denak  
gurean ere  
eragina  
duela



Baina jada esnatu gara, edo hobeto, esnarazi gaituzte. Eta bizi dugun egoerak erakutsi digu, gu ere, ahulak garela: gu ere ez gaudela salbu eta beste latitudetan gertatzen denak, gurean ere, eragina duela. Funtsean, kosmos bakar bateko elementuak gara eta era sistemikoan eragiten diogu elkarri. Eta talaia horretatik begiratuta, ezin diogu bizkarra eman gertatzen ari denari, osotasun horren parte garen heinean. XVII. mendeko John Donne pentsalariaren hitzetan: “Ez da uhartea den gizabana-korik”. Horregatik, komunitatean aritu beharra daukagu, komunitate indartsu bat eratuz, gu zabal bat osatuz.

Imajinatzen dut komunitate bat, non gizaki guztiek bizitza duina izateko aukera duten, non norbanakoek beraiengan dagoen onena eskaintzen duten, non ni ez naizen horrek nire begirunea duen. Nago, hori gauzatze-ko, oinarrizko balioak ezinbesteko tresnak direla, hala nola, konpromisoaren bidez jardun, erantzukizunez, elkartasunez, lankidetzan, giza harremanen bitartez sareak sortuz eta ehunduz. Iruditzen zait, elkarri begiratzeko garaia heldu zaigula, irakurle. Eman eskua eta egin dezagun bidea, batera. ■



TXANDAN

Edu Zelajeta



Disidentzia omen da diktaduraren eta demokraziaren artean dagoen funtsezko alde bat. Disidentzia egoteko aukera. Disidentzia horrek bere burua jendaurrean agertzeko eskubidea, pentsatzen duena duin garatzekoa. Izan ere, geure zenbait politikarik maizkara gogoratzen digutenez, diktaduran herritarren pentsamendua erreprimitzen da; demokrazian, ordea, diferentzia (ideologikoa) onartzen da.

Aurrekoa egia izatera, ez dakit zenbat benetako demokrazia egongo diren XXI. mendean, hau da, zenbat tokitan egingo zaion harrera goxoa diferente

### Disidentziaz

pentsatzeari. Munduan itzuli bat egitea aski da kontuak ateratzeko: non hartzen da ezberdintasuna demokraziaren oinarritzat? Zein estatutan ateratzen zaio etekina disidentziari?

Aldeak alde, demokrazian bizi garen herritarrok sarri askotan bizi gara ideologia bakarraren menpe, uste baino gehiagotan: demokraziako diskurtso ugari (erabateko) atxikimena dute xede, denok bat egitea helburu. Adibiderik nahi? Bada, oinarrizko hainbat eskubidetan murrizketak egitea ezinbesteko formula dela sinestartarzte. Gure hobe beharrez, gainera. ■

